

# ALTZA! PORRU



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkarte  
L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2003ko ekaina / 9 zenbakia

Euskal Herriko Trikitixa Egunean giro ona nagusi

Disko berriak

Aurrera begira: 2003. urteko zenbait  
ekintza garrantzitsu

Kalejiran

Hauspo zaharrak

## Euskal Herriko Trikitixa Egunean giro ona nagusi

Maiatzaren 4an, eguzki ederra lagun, hainbat trikitizale eta trikitilari bildu ziren Etxarri-Aranatzan. Trikitixa Eguna, ordea, beste eszenatoki batzuk ere ezagutu ditu. Pasaia, Gasteiz, Getxo eta iaiz Zamudion ospatutakoa gogorarazteak ez digu kalterik egingo, beraz. Aurtengo hau Nafarroako Trikitixa Elkarteak antolatu du, eta Euskal Herriko txoko askotatik hurbildu da jendea bertara. Hain zuzen ere, trikitixa-eskola askok jardun zuten bazterrek alaitzen. Han izan ziren Gipuzkoa aldetik Irun-Oiartzun-Pasaia inguruko jendea, Asteasuko koadrila, Azkoitiko beste hainbat lagun eta Eibarko trikitixa-eskola, baten batzuk aipatzearen. Bizkaitik, berriz, Zamudio eta Berrizkoek egin zuten bisita, esaterako. Arabatik, gasteiztarrek hurbildu ziren, eta Nafarroakoek ere, nola ez, bete zuten beren lana, Lesaka ingurukoak, Iturengoak eta beste hainbat tokitakoak kontuan hartuta. Azkenik, iparraldetik ere hurbildu zen trikitixa-eskola bat. Denen artean giro bikaina jarri zuten goiz partean. Guztira 19-20 bat trikitixa-eskola bildu ziren, tartean baita lagun koadrilaren bat ere, eta hauen esku geratu zen goizeko giroa berotzea.

Lehenengo trikiti doinuak entzun ondoan, bazkaritan mila bat lagun bildu ziren, nahiz eta egun osoan jirabiran jende gehiago ibili. Arratsaldean, berriz, bostetatik aurrera, erromeriari eman zitzaion hasiera. Bidea urratzea Epelde eta Larrañagak osatutako bikoteari egokitu zitzaion, eta ordubete inguruko saioa biribildu zuten. Ondoren, Kataluniako talde batek hartu zuen lekukoa, soinu diatonikoa eta biolinak lagun. Hauen ondotik, hasi bezalaxe, egunari bukaera erromeriaz erromeria eskarmentu handia duen bikoteak eman zion, Epelde eta Larrañagak osatutakoak alegia.

Bestalde, Juan Mari Beltranen erakusketa ere ikusgai izan zen kultur etxean eta jende asko bildu omen zen. Antolatzaileen esanetan, giro ederra izan zen egun honetan, eguraldiak berak ere lagundu baitzuen, eta pozik daude oso. Hori dela eta, antolatzaile lanetan aritutakoek trikitixa-eskola eta lagun guztiei eskerrak eman nahi dizkiete beren parte-hartzeagatik.

Honetaz guztiaz gain, zozketa batean parte hartzeko aukera ere izan zuten bertan bildutakoek. Dena dela, jakingo duzue honezkero egunean bertan ezin izan zutela zozketa hori egin. Ondorenean, ordea, jarri gaituzte zenbaki saridun bien jakinarenean. Honako hauexek dira zozketan saridun suertatu diren zenbakiak:

Trikitixari dagokion zenbakia: 0320

Panderoari dagokion zenbakia: 2985

Zorionak saridun izan zaretenoi eta ekin trikitia jotzeari!



*Trikitixa Eskola asko jardun ziren bazterrek alaitzen*

# AURRERA BEGIRA: 2003. urteko zenbait ekintza garrantzitsu

## Davide Conte-ren ikastaroa ekainaren 9tik 13ra

Italia helgoaldeako musikari hau ekainaren 9tik 13ra bitartean izan da gurean, berak bisitakoa besteri irakatsi nahian. Euskal Herria probintziaz probintzia bisitatu du, izan ere, Nafarroan, Gasteizen, Bizkaian, Gipuzkoan eta Iparraldean izan baita. Oro har, irakasle edo pandero-jotzaileentzat diren tailerrak eskaini ditu.

Davide Contek musika tradizionalaren erraiak arakatu eta jendaurrean erakustea nahi izan du. Festarik festa hainbat jaialditan parte hartu du, eta pixkanaka-pixkanaka bere estiloa lantzen joan da, betiere musikaren jatorriari helduta.

Iazko Trikitixa Jaialdian Andrea Russorekin (akordeoi diatonikoa) batera ikusi ahal izan genuen Kursoalen, eta hainbat taldetan parte hartu du: besteak beste, Cantica Popularia eta Tamburi del Vesuvio taldeetan. Ikastaroan mediterraneoan zehar egin du ibilaldia, bertako eritmo eta teknika tradizionalak irakasteko asmoz. Hauek dira, beste batzuen artean, irakatsi dituen perkusio-instrumentu eta teknikak: Tamburello (Pizzica salentina, Tarantella), Tammorra napoletana eta Tamburi arabi (Duf, Reik, Bendir).

*Davide Conte*



## Koldo Mitxelena hitzaldi eta mahai-inguruak udazkenean

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak trikitixari buruzko jardunaldiak antolatu ditu irailaren 30etik urriaren 3rako. Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean izango dira, 19.30etik 21.00ak bitarte. Trikitixaren inguruan lanean diharduten hainbat lagunek parte hartuko dute mahai-inguru hauetan, eta, parte-hartzaileen ekarrien bidez, eztabaida eragitea da xedea.

Mahai-inguruak ez ezik, hitzaldiak ere prestatu nahi dira. Gainera, hitza eta musika uztartzeko bidean, musika saioen bat ere gehitu nahi da. Dena den, oraindik ere puntu guztiak lotu edo zehazteke daudenez, hurrengo alean emango dugu zehatz-mehatz egitarau osoaren berri.

Nabarmenezkoa da jardunaldi-topaketa hauek abenduaren 16tik 19ra Bilbon egingo direla, Bilboko Musika Eskolako guruz.

## Nazioarteko Trikitixa Jaialdia Kursoalen

Trikitixa Jaialdia antolatuko da aurten ere azaroaren 22an, Kursoal Entzutokiko Ganbera Aretoan (Kubo Txikia), trikitilari belaunaldi berriei eta oro har trikitizale orori bultzada ematea xede hartuta. Jaialdi bizi bat antolatu nahi da eta Euskal Herriko hainbat belaunalditako trikitilariak biltzea da helburua. Joera berriko trikitixa ere gonbidatu nahi du Trikitixa Elkarteak bertara.

Kursoal-en izango den jaialdi honek beste xede bat ere badu, kanpoko trikitilariak ezagutaraztea. Soinu diatonikoa munduan beste hainbat bazteretan ere jotzen da, eta, nazioarteko harremanak lantzeko, beste tokietako soinu-jotzaileak ezagutzea da bidea. Izan ere, Trikitixa Elkarteak badu harremanik hainbat herrialdeetako soinu-jotzaileekin eta belaunaldi gazteen artean komunikazio hori eragiteko ezin egokiagoa den aukera hau aprobeixatu nahi luke.

Bestalde, ekitaldi honetan tradizionalizat hartzen den eraketari, hots, trikitixa eta panderoz osatzen den bikoteari, indarra eman nahi zaio. Izan ere, eraketa xume horrek aukera ugari eskaintzen ditu. Baina berrikuntzarik ere izango da, gauza jakina baita trikitixa ez dela soilik soinu diatonikoarekin egin. Horrexegatik, iaz soinu handia jotzen duen musikari batek parte hartu zuen bezalaxe, aurten dultzaineroen txanda izango da.

## Trikitilari profesionalen topaketak

**Trikitilari profesionalen topaketei** jarraipena eman nahian, datorren bilera **ekainaren 27an** (ostirala) egingo da, **11.00etan**, Trikitixa Elkarteak **Zarautzen** duen lokalean.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak abian jarritako ekimen honetan, oraingoan, Metak disketekeko Jitu eta Zulu izango dira, diskoa argitaratzeko orduan edozein musikariri sortzen zaizkion zalantzak argitzeko asmoz. Hona hemen argitu nahi izango dituzten hainbat puntu: lehenengo pausoa nola egin, enpresa eta artistaren arteko harreman hori nola gauzatu alegia, disko baten aurrekontua zenbatekoa den, azala, abesti-zerrenda, ekoizlea eta musikariak norik aukeratzeko dituen, kontratuak nolakoak izaten diren, enpresaren gastuak zenbatekoak diren, banaketa-kontuak, diskoaren ustiaketa (lehenengoaren ondorengo edizioak, bildumak, baimen bereziak), egile-eskubideak, hau da, diskoa norena den... Gai hauek eta gehiago jorratuko dira Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Zarautzen duen lokalean, trikitilari profesionalen mesedetan.

## SOINUAREN LIBURUTEGIA: 4. alea Sakabi trikitilari azpeitiarraren omenez

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 2001. urtean martxan jarri zuen proiektua dugu Soinuaren Liburutegia sail hau. Aurten liburu-disko hau Faustino Azpiazu "Sakabi" trikitilariaren omenez egitea erabaki da. Lasturko Sakabi baserrian jaiotako trikitilari hau 13 urte zituela hasi zen Jose Mari Aranberri "Madari Txikiarekin" soinua jotzen.

Sakabiri eskainitako liburua osatzeko, elkarriketak hartu dira oinarri, eta aurten Iñigo Aranbarri arduratuko da bilketa lana egin eta liburua idazteaz. Azkoitian jaio zen Iñigo Aranbarri, eta, inguru oso ondo ezagutzen duenez, pertsona aproposa da proiektu hau gauzatzeko.

Bestalde, Sakabiren oihartzuna beste musikari batzuegana ere heldu da; Juan Carlos Perezek berak ekartzen du gogora "Atlantic River" kantan:

"Ez ezak esan polita ez dela Egañazpi kantatzen Sakabiren Larrinaga-Guerriniarekin eta gero atseden bat hartzen duenean"

Sakabi eta Egañazpi Azpeitiko trikitixaren lekuko izan dira. Hori dela bide, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak omenaldia egin zion Sakabiri hil zen urte berean (1995), Azpeitiko pilotalekuan.

# Disko berriak

## Triki ta Ke: BIZIPEN GOSE



Triki ta ke taldeak "Bizipen gose" izeneko diskoa plazaratu du, lehengo erromerietako giroa gogoan. Hortik dator, nonbait, diskoari berari jarritako izena ere, lehengo bizipenak bizitzeko duten nahia erakusten du lanaren izenburuak-eta. Talde honen bigarren lana da Elkar argitaletxeak martxoaren bukaeran kaleratutako disko hau. Lehena, Triki ta ke (Elkar), orain dela bi urte atera zuten.

Egun bost dira taldea osatzen duten lagunak. Anabel Arraizak abesten du, eta berarekin batera, Joseba San Sebastian (baxua), Igor Telletxea (bateria, perkusioa, teklatura, tronboia), Iker Dorronsoro (trikitia) eta taldean sartu berria den Ruben Caballerok (gitarra) dihardute. Hori dela eta, taldeko partaide honen gitarra elektriko eta akustikoak zeresan handia du atera berri den diskoan.

Bada beste ekarrikerik ere disko honetan, izan ere, Igor Telletxeak lehen aldiz hartu du produkzio artistikoa bere gain. Grabazio-lanetan, berriz, teknikari gisa, Jean Phocas izan dute lagun. Bestalde, beste hainbat lagunak babesa ere izan dute. Hala nola, Luis Mari Moreno eta Alberto Almendrok (saxoa eta tronpeta), eta Gurutze Dorronsororen (panderoa) laguntza.

Bizipen gose lanak hamabi abesti biltzen ditu, eta doinu guztiak dira Igor Telletxea, Iker Dorronsoro eta Ruben Caballerorenak. Hitzei dagokienez, hainbat lagun ezagun dago tartean. Estitxu Fernandez, Karlos Aizpurua eta Sustrai Colina, esaterako. Badira, halaber, Imanol Ubeda (Bide Ertzean), Felipe Saragueta eta Jexux Mari Lopetegik idatzitako testuak ere. Anabel Arraizak, berriz, Joseba Sarrionandiaren Damurik ez olerkia abiapuntu hartu eta aldaketa batzuk egin ditu.

Triki ta ke taldeak egindako bigarren lan hau ere entzun erraza dugu, freskoa, alaia eta bizia; dantzara bultzatzen duena. Taldeak hamaika emanaldi egingo ditu udan, eta izango da aukera beren lan berria hobeto ezagutzeko.

## Koldo eta Arantxa Iparragirre: ZURETZAT



Maiatzaren 8an aurkeztu zuten Koldo eta Arantxa Iparragirrek beren bigarren diskoa, Zuretzat izenekoa. Zuretzat mugagabea, gainera, guztiak eskaintzen baitiete lana anaia-arreba hauek. Beraz, norberak har dezala diskoa berari eskainia bailitzan, asmo horrekin jarri baitote izenburua lanari. Lehen lana, Murumendiko Mari (1996), berek ekoitzi zuten.

Txapelketen ibilbidean nabarmendutako bikote beasaindar hau 1985etik 1997ra bitartean 19 sari irabazitakoa da. Hain zuzen ere, 1997an ETBko sariketan garaile gertatu zen Zuretzat abestia da diskoari berari izena ematen diona. Tartean badago beren aitona zenak jotzen zuen doinu bat ere, izan ere, familiatik datorkie musikarako zaletasuna. Hori ez ezik, maketa batean argitaratu zen Imanol Urkizuren aspaldiko kanta bat ere berreskuratu dute, Jose Mari Goikoetxea zenaren testua duena.

Elkar etxearen bidez atera dute diskoa Koldo eta Arantxa Iparragirrek eta erromeria giroko diskoa egitea izan dute helburu. Horrelaxe datozkigu, beraz, bigarren lan honetan, freskotasuna ageri-agerian utziz. Fandago, arin-arin, trikitixa eta betiko rantxerak entzun daitezke diskoan bertan. 13 abestiz osatutako lan hau gauzatzeko, Jean Phocas izan dute grabatze-lanetan gidari. Koldo (trikitixa eta ahotsa) eta Arantxak (panderoa eta ahotsa), Fernan Irazoki (bateria eta perkusioa), Mikel Irazoki (baxu elektriko eta programazioak) eta Joseba Irazoki (gitarra elektriko, gitarra akustikoa eta lapa steel gitarra) dituzte lagun. Beste batzuek ere parte hartu dute, ordea, diskoan: Mertxe Etxeberria eta Ainhoa Garmendiak (irrintziak), Lesakako kriskitinek eta Garbiñe Sagastibeltzak (pare bat abestitan ahotsa) alegia.

Letragileei dagokienez, Aitor Sarriegi, Ekaitz Goikoetxea, Joxe Munduate, Jon Maia, Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio jarri dituzte lanean.

Sei bat urteko isilaladiaren ondotik, hauek ere ekin diote dagoeneko udak eskainiko dien plazaz plazako martxari. Beraz, izango da hauen doinuak non gozatu eta non dantzatu.

## Kepa Junkeraren azken lana kalean

Kepa Junkerak hamargarren diskoa grabatu zuen zuzenean Arriagan, martxoaren hondarrean, eta ekainaren 16an ikusi du argia lanak. Musikariaren 25 lan ezagun eta berri biltzen dira CD bikoitz honetan, guztiak ere lan honek eskatzen duen erara moldatuak.

Disko hau grabatzeko 60 bat lagun elkartu ziren Arriagan, musikari eta teknikariak tartean. Kepa Junkerak berak dioenez, zuzeneko emanaldi hauek disko batean bilduta ez du perfekzioa erdietsi nahi izan, bizitasuna baizik. Kolaboratzaile apartak izan ditu lan honetan. Musikarien artean, Ibon Koteron, Patrick Vaillant eta "La Bottine Souriante" taldeko partaideak, esate baterako.

Bestalde, grabazioaren koordinatzaile orokorra Aitor Narbaiza izan da. Eszenografia lanetan, berriz, Jose Ibarrola eta Koldo

Belloso izan zituen lankide bi egunetan, betiere musika nabarmenduko zuen eszenario xume bati eutsi nahian.

Kepa Junkeraren hitzetan, diskoaren grabazioak alde aurretik egin beharreko lan eskerga eskatzen du, hilabete luzeetako, izan ere, hainbat talde, musikari eta teknikari jarri behar dira elkarrekin lanean, eta dena ondo lotu beharra dago.

Musikari bilbotarrak 20 urte baino gehiago daramatza lanean eta ibilbide horretan 9 disko argitaratu ditu. Oraingo honetan bere ibilbidea zuzeneko bi saiotan grabatutakoarekin laburbildu du, ia hiru ordu irauten duen CD bikoitzean. Hori bai, argitaratu gabeko piezak ere gehitu ditu lanean. Aipatu beharra dago lau hau beste aldi baten irekiera edo aurrekoaren itxieratzat hartzen duela Junkerak berak, mugarriztat hein batean.

# HAUSPO ZAHARRAK



*Eleuterio Tapia eta Juanito Tapiak alaitu zuten, soinua lagun zutela, euren anaia Antonio Tapia Josepa Usabiagarekin ezkondu zeneko egun handia. Eliza ataria erromeria leku apropos bihurtu zuten une batetik bestera. Dantzari-lanetan, berriz, Luis Tapiak eta Maria Luisatxo Arsuagak jardun zuten, eta, argazkian ageri denez, ez zuten oinetako berezirik behar izan hankak arin-arin mugitzeko. Zaldibiako plaza izan zen ospakizun honen lekuko, 1957ko urtarrilaren 3an.*

## KALEJIRAN

### • Oro bil, borobil, Araba Euskaraz-en leloa

Araba Euskaraz-en 21. edizio honetako abestiaren produkzioan Kepa Junkerak eta Maixa Lizarribarrek lan egin dute. Joan den apirilaren 15ean aurkeztu zuten jendaurrean Xabier Arakama, Maixa Lizarribar, Kepa Junkera eta beste hainbat lagunek. Oro bil, borobil abestian hainbat instrumentu eta Oingo ikastolako haurren ahotsak entzun daitezke, eta Oionen ospatuko den Araba Euskaraz-en parte hartzeko gonbita egiten dute, euskararen alde apustu eginez. Alboka, txalaparta, bodhran eta didgeridoo instrumentuek jartzen diote doinua abestiari, eta letra idazteaz Iker Zubeldia arduratu da.

Gainera, eginahal honen bidez, Musikene musika eskolako ikasleek beren sormena jendaurrean erakusteko aukera izan dute, eurak ere parte-hartzaile baitira hein batean.

Prestatu duten CDan Oro bil borobil abestiaren hiru bertsio bildu dituzte. Beraz, Kepa Junkerak ekoitzi duenaz gain, Bilboko gaita-jotzaileek egindako bertsioa ere entzun daiteke. CDan bertan letarik ez duen bertsioa ere gehitu dute, nahi duenak, Araba Euskaraz-erako prestatutako kantu honi norbere ahotsa jarritz, ondo pasa dezan. Hori gutxi ez balitz, Oiongo ikastolak aurreko urteetan Araba Euskaraz-erako prestatu diren kantuak ere ekarri nahi izan ditu gogora, eta horiek ere diskoan bildu ditu.

### • Galbahea

- **Anabel Arraizak** (Triki ta Ke) Irutxulon: "Bizkaia aldean jotzea sekulako gozamena da, harrera oso ona da eta. Gipuzko aldean, berriz, giroa hotzagoa da, plazak hutsik geratzen dira".

- **Joxan Goikoetxeak** Euskonews & Media-n:

- "Ez dugu musika arautu eta normalizatzerik lortu. Ez dugu zirkuitu egonkor bat lortu. Musikako urrezko izenak dinosuruak dira. Gure musika, euskal musika, aspergarria iruditzen baldin bazaigu... bidegurutze batean gaudenaren seinale. Musika bidegurutze batean dago".

- "Oso garrantzitsua da aurrekoek esan zutena entzutea, batez ere musika tradizionalaren eremuan. Beharrezkoa da erreferentziak izatea; informazioa edo ezagutzak izatea bezala.(...) iruditzen zait herri hau, musikari dagokionez, uste baino askoz ere ezjakin eta intoleranteagoa dela. Erreferentzia gehiago behar ditugu".

- "Eta hain modan dagoen mestizajeak ez luke helburu bat izan behar. Batzuek hori bilatzen dute, helburu komertzial batekin, ondo saltzen delako, baina hori burugabea da. Hunkitu egiten duelako jo behar da mestizajera, edo behintzat arrazoi koherente bat egoteagatik. Gainera, globalizazioak gauza asko maila berean jartzen ditu. Beraz, globalizazioa bai, baina kontuz".

- **Iker Goenagak** Deian esana trikitixaren egungo egoeraz:

- "Duela urte batzuetako 'boom' horren ondoren jaitsi egin da trikitia. Lehendik ere oinarri sendoak zeuden. Egun trikitia ez dago jota, ez dago arriskuan, bere egoera normalizatu egin da, ez besterik".

### • Agenda

Hona hemen uda hasiera honetan trikitixaz gozatzeko zenbait proposamen. Udan zehar izango diren beste hainbat emanaldiren berri izateko, berriz, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak duen web-orrira jo dezakezue: [www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net).

#### Ekaina

##### -Tapia eta Leturia

Ekainaren 1ean Durangon; 8an Oionen, Araba Euskaraz; 15ean Lasarteko plazan, 19.00etan; 23an Olaberrian; 24an Iturriotzen; 26an Iruñean, Erraldioen Txokoa; 28an Calaf-en (Bartzelona), plazan, 00.00etan; 29an Mungian.

##### -Kepa Junkera

Ekainaren 6an Elgoibarko Sigmaren parkingean, 23.00etan; Ekainaren 20an Guadalajaran, Solsticio Folk Jaialdian; 24an Muskizko San Juan kanpan, 21.00etan, 28an Givry-n (Frantzia), Domaine Thenarde-n, 22.00etan.

##### -Trikitizio

Ekainaren 7an Donostiako Egia auzoan, Aitor Ikastolan, 21.00etan; 7an Igorren, 01.00etan; 8an Oionen, Araba Euskaraz, 18.00etan; 14an Soraluzen, 23.00etan; 20an Eako plazan, 23.00etan, 21ean Donostiako Herrera auzoan, 23.00etan; 24an Seguran, 23.00etan; 27an Ataungo Aian, 23.00etan; 28an Eskoriatzan, 23.00etan.

##### -Ene Bada

Ekainaren 7an Ondarruko plazan; 21ean Eako plazan, 23.00etan; 23an Segurako plazan, 23.00etan; 28an, Loiuako plazan, 23.00etan.

##### -M-n Ezten

Ekainaren 21ean Igorreko plazan; 23an Abaltzisketako plazan, 23.30etan; 27an Zarauzko Musika Plazan, 23.00etan; 28an Barañainen, 00.00etan.

##### -Koldo eta Arantxa Iparragirre

Ekainaren 22an Segurako Herriko plazan erromeria, 23.00etan.

##### -Bigira taldea

Ekainaren 28an, Munitibarren; 29an, Ezkio-Itsason.

##### -Imuntzo eta Beloki

Ekainaren 28an Zarautzen, San Pelaion.

##### -Epelde eta Larrañaga

Ekainaren 7an Azkoitian, Martiritan, gauean; 12an Ereñozun, gauean; 14an Zeberion, gauean; 16an Azpeitian, Nuarben, gauean.